

Xedapen Orokorrak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2751

140/2010 DEKRETUA, maiatzaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2011. urteko jai-egunen egutegia onartzeko dena.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12. artikuluan eta martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 37. artikuluan ezarritakoa betez, Jaurilaritzari dagokio 2011. urteko lanegunak eta jaiegunak finkatzea, urteak, gehienez ere, hamalau jaiegun izango dituela kontuan harturik.

Apirilaren 22ko 2/2010 Legeak urriaren 25a, Euskadiko Eguna, jai egun ofizialtzat jo du ondorio guztietarako, lan-arloko ondorioak barne.

Hori dela-eta, Lanaldia, lanaldi bereziak eta atse-denaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuko 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, lanaldiei buruzko irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuko xedapen indargabetzaile bakarrean xedatutakoari jarraiki, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Lan Harremanen Kontseilua eta gainontzeko kontsulta-organoak entzunda, eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2010eko maiatzaren 18an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Bi mila eta hamaikagarren urtean, urte osoko igandeak eta aipatzen diren egunak jaieguntzat hartuko dira lan ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan:

- Urtarrilaren 1a, Urteberri Eguna.
- Urtarrilaren 6a, Jaunaren Agerkundera.
- Apirilaren 21a, Ostegun Santua.
- Apirilaren 22a, Ostiral Santua.
- Apirilaren 25a, Pazko Astelehena.
- Uztailaren 25a, Santiago Eguna.
- Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundera.
- Urriaren 12a, Espainiako Festa Nazionala.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2751

DECRETO 140/2010, de 18 de mayo, por el que se aprueba el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2011.

De conformidad con lo establecido en el artículo 12 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y en el artículo 37 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, es competencia de este Gobierno establecer, dentro del límite anual de catorce días festivos, el calendario de días laborables y festivos para el año 2011.

La Ley 2/2010, de 22 de abril, ha declarado al día 25 de octubre, Día del País Vasco-Euskadiko Eguna, fiesta oficial a todos los efectos, incluidos los laborales.

En su virtud, y en concordancia con lo dispuesto en los artículos 45 y 46 del Real Decreto 2001/1983, de 28 de julio, sobre regulación de jornada de trabajo, jornadas especiales y descansos, vigentes a la sazón, de conformidad con lo dispuesto en la disposición derogatoria única del Real Decreto 1561/1995, de 21 de septiembre, sobre jornadas especiales de trabajo, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, habiéndose dado audiencia del Consejo de Relaciones Laborales y demás órganos consultivos interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de mayo de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.— Tendrán la consideración de días inhábiles a efectos laborales en el País Vasco durante el año dos mil once todos los domingos del año y las festividades de:

- 1 de enero, Año Nuevo.
- 6 de enero, Epifanía del Señor.
- 21 de abril, Jueves Santo.
- 22 de abril, Viernes Santo.
- 25 de abril, Lunes de Pascua de Resurrección.
- 25 de julio, Santiago Apóstol.
- 15 de agosto, Asunción de la Virgen.
- 12 de octubre, Fiesta Nacional de España.

– Urriaren 25a, Euskadiko Eguna.

– Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna.

– Abenduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren Eguna.

– Abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren Eguna.

2. artikulua.– 1.– Lan ondorioetarako, bi mila eta hamaikagarren urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuaratu beharko. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta. Lurralde historikoko gainerako udalerriekin batera edo aparte hartu ahalko dira.

2.– Dekretu hau argitaratzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta beren lurralde ordezkarietara bidali.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari aginpidea ematen zaio dekretu honetan xedatutakoa ezarri eta betetzeko behar diren xedapenak emateko.

Bigarrena.– Dekretu honek administrazio-bidea amaitu egiten du. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa ezar diezaiokete, interesdunek, Jaurilaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, dekretua aipatutako aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko maiatzaren 18an.

Lehendakaria,

FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

– 25 de octubre, Día del País Vasco-Euskadiko Eguna.

– 1 de noviembre, Todos los Santos.

– 6 de diciembre, Día de la Constitución Española.

– 8 de diciembre, Inmaculada Concepción.

Artículo 2.– 1.– Serán también inhábiles para el trabajo, retribuidos y no recuperables en el año dos mil once, hasta dos días con carácter de fiestas locales, que se establecerán por las y los Delegados Territoriales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, a propuesta del Pleno de los Ayuntamientos respectivos, pudiendo ser comunes o no en los diversos términos municipales de cada Territorio Histórico.

2.– Los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas y remitirlas a la respectiva Delegación Territorial que por ubicación les corresponda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de la publicación del presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y ejecución de lo dispuesto en este Decreto.

Segunda.– Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– El presente Decreto surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 2010.

El Lehendakari,

FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.